# La Audiencia de Bizkaia ordena investigar los trabajos del TAV en Iurreta

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 31/05/2011

La Audiencia de Bizkaia atiende así el recurso de apelación presentado por un grupo de vecinos contra el auto que archivó una querella anterior.

AHT Gelditu! de Durangaldea y los vecinos de los barrios de San Andrés y Orozketa de Iurreta informaron la semama pasada de que la Audiencia de Bizkaia ve indicios de delito y ordena al Juzgado de Durango que investigue la denuncia interpuesta por éstos. Los afectados estiman que ADIF y las empresas contratadas para la construcción del TAV pudieron incurrir en un delito ecológico en el vertedero de Orozketa, donde se han depositado miles de toneladas de tierras sin tener en cuenta que pueden arrastrar metales pesados y contaminar los acuíferos.

La Audiencia de Bizkaia atiende así el recurso de apelación presentado por un grupo de vecinos contra el auto que archivó una querella anterior. Con anterioridad el Juzgado de Instrucción número 3 de Durango había ordenado el archivo de la causa, lo que llevó a los vecinos a presentar esta iniciativa en la Audiencia, que otorga credibilidad a su denuncia.

argazkia1

En una comparecencia, los vecinos denunciaron los graves perjuicios que vienen sufriendo en los barrios de San Andrés y Orozketa, que afectan a su calidad de vida, trabajo y salud, así como al entorno natural. Como responsables señalaron a ADIF pero también al Ejecutivo de Lakua y al Ayuntamiento de Iurreta que no se implica en defenderles y mira para otro lado.

Precisamente a los responsables municipales les demandaron que se impliquen con los afectados en la denuncia en los tribunales y a Medio Ambiente de Lakua que, al menos, haga respetar las leyes. Además, llamaron a la ciudadanía a que se movilice ante los daños ecológicos y económicos que traerá aparejados el TAV.

Desde AHT Gelditu! de Durangaldea llamaron a participar en una marcha montañera que partirá el sábado 4 de junio de Elorrio y en la manifestación nacional convocada para el 11 de junio, a las 18.00, en Arrasate.

euskeraz

2010eko maiatzean Orozketako zenbait auzokide, inguruan gertatzen ari zen sarraskia ikusirik AHTaren obren aurka Durangoko epaitegietan salaketaargazkia1jarri zuten. Kasu zehatz honetan, AHTaren obrak ingurumenaren aurkako delitu jakin bat egin zutela salatu zuten: zabortegi zahar bateko kutsatutako lurrak mugitu zituzten, Etxaran erreka zeharo kutsatuz, eta inongo legezko prozedurarik jarraitu gabe. Are gehiago, Eusko Jaurlaritzak 2009ko uztailean iada obra gelditu zuen, segurtasun neurriak hartu ez izanagatik.

Baina sarri gertatu ohi den bezala, batez ere, AHTa bezalako makroazpiegituren objetan, administrazioak bere lana egin ez duenez lege- hauste nabarmenak gertatu dira; eta larriagoa dena, administrazioak lege-hausteak gertatu ondoren ere, ez duenez esku hartu auzokideak izan dira epaitegietara jo dutenak.

Auzokide hauek, Elkarlanaren laguntzarekin epaitegietara jo zuten babes bila, baina Durangoko Instruzkiozko 3. Epaitegiak kereila berehala artxibatu zuen, inongo arrazoi gabe, eta datu okerrak aipatuz, auzokideak obra erraldoi honen aurrean babesgabe utziz. Hala ere, beti gertatzen ez bada ere, Bilboko Entzutegi Probintzialak arrazoia eman die, delitu zantzuak daudela esanez, eta kasua aztertu behar dela erabakiz. Baina ez hori bakarrik, AHTa bezalako azpiegitura batetaz hitzegiten duela kontuan izanik, ondorengoa ere aipagarria dela iruditzen zaigu:

“De la documentación presentada por los denunciantes no se desprende de manera inequívoca, como dice el auto apelado, que la actividad de la empresa denunciada se encuentra dentro de la legalidad. Además hay que recordar que el hecho de que exista una autorización administrativa para actuar o ejecutar una serie de obras no supone que no se pueda delinquir. Se puede perfectamente cometer el delito aunque existan autorizaciones administrativas.”

Hau da, baimen administratiboak ondo egon arren, posible da delitua egitea. Hori da, AHTarekin gertatzen dena.

Baina guzti honetatik larriena zera iruditzen zaigu: obrak ez daudela geldi, posible dela delitua egin izana, edota oraindik delitua egiten jarraitzea eta AHTaren obrak martxan daudela, ez dituztela gelditu. Nork dauka horren ardura?

Ez da Orozketakoa, eskualdean aurkitzen dugun AHTaren proiektuaren inguruko legez kanpoko kasu bakarra. Beste auzi larri bat, Abadiño-Atxondo-Elorrio tartean aurkitzen dugu, non proiektua legeak ezartzen duen eremutik kanpo eraikitzea nahi duten, eta horretarako herritarrei eta udalei ADIF eta Gobernuko Ordezkaritzak txantaila egiten dien.

Lege-hauste hauek ez dira berriak, orain dela pare bat urte Iurretako Maria Goreti eskolako instalakuntzetan ezarri zituen bulegoak ADIF erakundeak inongo baimenik gabe; eta zenbait salaketa publikoren ondoren, bertan behera utzi zituzten. Orain EITBko egoitza zaharrean daude. Baimen guztiak al dituzte oraingoan?

Elkarlanak behin eta berriro aldarrikatu duenez, AHTa bera da delitu ekologiko bat. Inondik inora justifika ezin daitekeen delitu bat da AHTa. Baina orain, obrak hasi direnean, argi daukaguna zera da: AHTa eraikitzea ez dela delitu bat bakarra, egunero milaka lege-hauste burutzen ari direla.

Guzti honen aurrean aukera bakarra gelditzen zaigu herritarroi: AHT gelditzeko lanean jarraitzea. Orozketako herritarrak adibide ezin hobea dira lan honetan, Udalak eta Eusko Jaurlaritzak egin ez dutena beraiek egin dute: delitua epaitegietan salatu.

Zentzu honetan ere, administrazioei, bereziki aste bi barru eratuko diren Udalei gure ingurumena eta gure interesak defendatzeko eskaera lutzatzen diegu; beraien ardurak

hartzeko eskatzen diegu: zehazki Iurretako Udalari, Orozketan gertatzen dena argitu eta epaitegietan aurkeztea.

Gainontzeko herritarroi ere gonbidapen bera egiten dizuegu: bakoitzak bere eremuan AHTa bultzatzen duen eredu sozioekonomikoaren aurka lanean jarraitzea, eta aurrean dituen injustiziak salatzea (Mañariko harrobiak, errepide azpiegiturak, Gueñes-Itxaso goi tentsioko linea, Otxandioko Eolikoak,…).

Azkenik, herritarrei, Udalei, talde sozial eta ekologikoei, deia luzatzen diegu “Tenemos argumentos para parar un tren. AHT Gelditzera goaz!” lemapean Ekainaren 4an Elorrion egingo den mendi martxan parte hartzeko, eta Ekainaren 11an arratsaldeko 6retan Arrasaten egingo den manifestazio nazionalean parte hartzeko.

---

*https://eh.lahaine.org/la-audiencia-de-bizkaia-ordena-investiga*